

Gerlaz betetako pakea

RAMON LABAIEN



50 urte bigarren gerla nagusia amaitu zenetik Europan. Lehen bomba atomikoaren izugarria oraindio gertatzeako baitzen Asiako urrunetan.

Gerlaren bukaerakin, nolabaiteko pakea. Eta segidan, gerla hotza. Han eta hemen bero eta odoltsu bihurtzen zitzaiguna. Pakearekin ere, kolonialismoaren azken arnasak, Mundu osoan askatasun berpiztuak. Zartadak, pozak eta maskoak. Eta Israel, berriro bere landan, zutik Europan, demokrazia zabal argi bat alde batekoentzat eta diktaduraren iluna beste-koentzat. Guretzat, euskaldunontzat, deus ez. Francoren menpetik Francoren menpera, 50 urte horietatik 30 igaro ditugu diktadorearen desagertzeko ekarriko zigan argiarenean.

Amaitu zen gerla hotza, bainan gerla berok hor eusten diote, edozein xokotan su hartzen. Gaur, batetik, hutsune politikoko sortuak eta bestetik miseria hutsak ekartzen dituenak ari gara ezagutzen, sendatzerik ez duen eritasun balira bezala. Horiie begiratu, nolabaite txikiago dirudite etxean ditugun korapiloak. Benetan korapilo izan arren eta kezkarriak. Ikusiz, adibidez, Espainiako eskubikoak, betidaniko eskubi zahar eta kaltegarriaren tankera ari direla hartzen. Aznar jaunaren aurkako eraso latza izan dutela sumindura emaila eta bota dituzte eusko abertzale-tasunaren aurka barnean daramazkiten guziaz... Eusko alderiak direla eta ikastolak eta baita ere euskaldunen arnas egiteak. Ez da harriztekoa hasiak bagara hemen—eta bazen garaia—bata bestearen artean elkartasun pittin bat azaltzen. Kanpotik astindutako ostiak baditugu beharrezko begiak zabal ditugun, izan daitezke ongi etorriak ostiak horiek. Besteak beste, mahai honen edo haren bazkideen arteko mugak ziriti-zarta azpimarratzeko.

Ez etsi

TXILLARDEGI



MAIATZAREN

Lehenengoaren bezpera honetan, etsipena bide dago gailen han eta hemen. Zafratutakoak, jipoiuak, jaun-txoek zapalduak oro, ohoratzeak eta nagusi jartzeko antasmatuak eguna, ezinduen eta porrot egindakoan eguna bitartu bide da.

Zinez esan daiteke, eta esan behar da, eskuindarek eta diruaren adoratzaileek ez zutela, aspaldi honetan, bolara pozgarriagorik ezagutu. Ezkerraren esperantza bera koloka ageri da; eta Maiatzaren Lehena utopia baikizik ez du gogoratzen, itxuraz.

Herri zapalduak ere jai bide dute: inperioek irabazi dutela dirudi. Aginteen zerbitzutan ari diren 'media' delakoez ere horixe sinets arazten baitute.

'Shqiptare-tarrak' (albaniarak; 4,4 milioi orotara) zapalduak eta ukatuak dira Kosovon, Serbian, eta Mazedonian. Otsailaren 17an hetsia izan da Tetov-ko albaniar Unibertsitate berria. (Mazedonian, beraz); eta Sulejmani Errektorea arrestatua. Baina aste honetako 26an, 10.000 albaniar manifestatu dira Tetovon, Albania Batu eta Askatuaren alde.

Yeltsin 'czar' berri odoltsuak, odoloz tindatu ditu Txetxeniako bazterrik; fatxarrik arrazakioenek egingo luketen bezala. Eta, hori eskarnioa, Grozny ezarri du zapalkuntza azkeneraino eramango duen '58. Armada' espeziala. Bapo mutilak! Baina, txetxeniar mirregarrien gerrilla ausartzak gain, Europako intelektualek ere (aspaldiko partez!) ageri gogor bat kaleratu dute Errusiar inperialismoaren aurka.

Zapalduak langileen eta herrien Egunari hats berria ematea baino ederragorik ba al dago, bada?

Baina jauntxoek eta zapaltzaiekek honelakorik nahi ez izatea normala da. Badakigu.

Horregatik oihukatzen dugu ozenki, eta oikukatuko: Gora Ezkerral!

HEMEROTEKA



Aitorpen berria. —Bi orriekin nahikoa da. / DIARIO DE NOTICIAS

EL CORREO ESPAÑOL

Diskurtsoak eta inkestak

Berriro ere euskal Gobernuaren isiltasun ohargarria eta bere ez-izatea ondorioztatu ahal da. EA eta PSE sozioak direlako ez balitz, honezker egunkarietako orriak Ardanza-ren lidergo faltari buruzko aipamenez josita izango lirateke.

Bi alderdian arduratuta dabilta. Gobernu administratzaile talde bat da, Ardanza administratzaile nagusi dutela; baietz ba, Pirinioetatik hitz egin duela eta transferentzia falta gogoratu duela. Mari Karmen Garmendiaren bidez, euskal Gobernuak, hau da, Ardanzak, honelako zerbait esan du: «Umeok, ez borrokan aritu, ama triste jartzen da-eta». Beinke, Honek honela jarraitzen bada pena izango da EAk eta PSEk beraien gizon onenak Gobernuan sartu izana.

CHARO ZARZALEJOS

ZUZENDARIARI

Maiatzaren Lehena emakumeen eguna

Maiatzaren Lehenean egiten diren ekitaldi publikoetan gero eta emakume gehiagok hartzen dugu parte, bai sindikatuen zein kolektibo sozial aktiboen, emakumeen asanblada, etxeko langile, etxeko laguntzaile, langabetuen asanbladen... dieldieki jarraituz (manifestapen, ospakizun egintza eta erreindikazio).

Maiatzaren Lehena gizonetako langileen eguntzat hartzen da oraindik ere, eta emakumeak, hau da, etxekoandre, gazte, ikasle, langabetu eta enplegatuen partaidetza ikusten ez den hoietariko da, abots, irudi publiko, erreindikazio eta interes propiorik gabeko kolektibo bezala.

Gizarteak ulertu behar du dagoeneko, lanak, pertsonak egiten dugun ekintza denez gero, balorazio berbera izan behar duela, eremu pribatuetan nahiz eremu publikoan desarrollatu; haurrek haztea, elikadura, pertsonen osasuna eta garbikuziak, gizarte derrigorrez bete behar diren lanak direnez gero ezin dela jarraitu ikusi gabe, baloratu gabe, onartu gabe eta emakumeen ardurapean soilik uzten.

Gaur ezin dugu onartu besterik gabe emakumearen bizimoduaren, bereziki eremu publikoan eta enpleguan, eman diren aurrerapausoen betisia, ez bait da aurrerapauso osoa. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen gaurko egoera ikus dezakegu ere, enpleguaren eskaeran gizonak eta emakumeak berdintsu egonik ere, lanean ari diren emakumeen kopurua % 25,6koa den bitartean gizonena % 52,2koa dela.

Okupazio alorretan, emakumeen gehiengo zerbitzuen alorrean ari da, % 84,3a. Industrian % 12,1 eta gehienak

idazkaritza lanetan; nekazaritza eta erakuntzan ez gara % 3ra ailegatzen. Era berean emakumeen soldata maila gizonetakoena baino % 21,6 gutxiago da.

Aipagarria da ere bai emakumeak kili-kolikako lanetan ari garela, lan murgilduan (etxeko langileak, jostunen taiierak...), kolektibo hauek erregularizatu gabe daude eta lan eskubide eta sindikalak onartu gabe, lan murgildua eta denboraldiko lanetan emakumeak daude.

Egoera honen aurrean CCOO, ESK-CUIS, LAB eta STEE-EILASen emakumearen idazkari edo alorrak Administrazio publikoan jarrea salatzeta, zeren egunetik egunera murrizketa sozialak aplikatzen ari bait dira; Gobernuari eta enpresarioei eskatzen diegu diskriminazioa zuzentzeko neurriak martxan jar ditazatela enplegu eta lanaren banaketa benetako berdintasunez eman dadin, emakumeen langabezia gutxitzeko eta emakumeak alor eta lan maila gutxiertara ailegatzeko.

CCOO, ESK-CUIS, LAB, STEE-EILAS, EMAKUMEAREN IDAZKARITZA ETA ALORRA

NUPEko errektorea

Klaustro Eratzalearen azkeneko biltzarrean orain arte NUPEko (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) Errektore izan den Juan Garcia Jauna bere jatorrizko unibertsitate (hau da, Zaragozakora) itzuliko dela aipatu zen.

Hasten den unibertsitate batean erraza da oso, emaitzak testuingurutik at ateratez, balantze oportunistak egitea, zuzendaritza talde bat edo beste erabat txarra edo ona izan dela frogatu. Ez da nere asmoa holako balantzerik egiterik. Nafarroako unibertsitate-rik kanpo agian oso ezaguna ez den ger-

taera bat aipatu nahi dut.

NUParen sorrera arte, Nafarroako eskola unibertsitarioak beste unibertsitateen menpe zeuden. Hain zuzen ere, Magisteritza Eskola Zaragozako Unibertsitatearen menpe zeogen. Eta unibertsitate honetan, Camarena Jauna errektore zenean, magistratitzako lerro bat euskeraz jaio eta finkatzen hasi zen.

Jairo berria zen NUParen zuzendaritza Batzorde Sortzaile izeneko talde batek zuen. Organismo politiko-akademikoan zen (Urralbururen gobernu taldeko zenbait politikariz eta zenbait irakasle zosatu), eta haren lehen erabakien artean bat izan zen aipatu dugun lerroa deuseztatzea. Eta Zaragozako erakunde etorri den eta bere jaioterriko unibertsitateari itzultzen den Errektore batenkin posible izan da euskerazko lerroa berpiztu eta euskararen erabileraz bultzatzea, neurri apal batean behintzat.

Ondorioak? Bai, zenbait: Tolerantzia ekin ez frogatzen dela eta ez bakarrik manifestuak sinatuz; unibertsital sentimendua ez dela ikasten ikastaro trinko batean; Zaragozako Unibertsitateak 400 urteko historia daukala; NUPEko unibertsitari gehienak tolerantzak gurea euskararen; gurea bezelako komunitate tipietan zenbait erabakirik beren arduradun politikoko errudikuloan jartzen dutela... Beraziki —*Helas!*— nahitatez arbelera eta kilarionera itzuli behar duten arduradun ohi horiek.

Hemendik, Juan Garcia Blasco Jaunari esan nahi diot joango denean: *Gracias y ¡buen viaje!* edo: Esker aunitz eta ondo ibili!

EDUARDO LAKASTA ZABALZA
(NUPEko irakaslea)


Iruiña

GAIA JARRITA

Maiatzaren Lehena

Hari batetik zintzilik dago langileen etorkizuna, estu ta larri jarri digute eskubideen osasuna. Denok gogoan hartu dezagun Maiatzaren lehen eguna, gure kaleetan entzun dezaten arrazioan oihartzuna, sekulan baino beharago da langileon batasuna.

BITTOR ELIZAGOIEN



Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordezkarria: INAKI URJA

Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egottze nagusia: Gudaren etorbidea, z/g, 20140 Andoain

☎ 300 222 / Eredakizoko faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707

Araba: San AmONIO, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratze Monastegia, 45-13 esk. / (Irritzid dorea) / 31011 Iruleta

☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zaballuru Enparantza, 2-1. ezkerre. / 48003 Bilbao

☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta

Kutxialdi. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11